berriak Triforio -tik

88. Zkia.
2020ko azaroa

araba álava

Errealitate Birtualeko Esperientziak harrera bikaina izan du

Urriaren 6an "Errealitate Birtuala eta Harresia Esperientzia" ekimena abian jarri zenetik, bisita mota hori egiteko erreserben programa ia egunero bete da. Gaur egun, Santa Maria Katedrala Fundazioak egunero eskaintzen du bisita birtuala –astelehenetik ostiralera 17:00etan, eta asteburuetan 11:30ean–, talde txikietara mugatuta eta beharrezko prebentzio eta segurtasun neurri guztiekin.

Esperientzia hori aurkezteko ekitaldia urriaren 5ean, astelehenean, izan zen. Komunikabideen interesa piztu zuen, eta komunikabide horiek ekimena abian jarri izanaren berri jaso zuten. Egun horretatik bertatik, gainera, bisita birtuala osatzen duten ikus-entzunezko hiru piezak eskuragarri daude Fundazioaren webgunean, Youtubeko kanalaren bitartez:



Santa Maria plaza 360º, Gasteizko Harresiko Ateak 360º, eta Hirigintza dorretik 360º.

Interesatuek, katedralaren webgunean edo 945 255135 telefonoan erreserbatu behar dute "Errealitate Birtuala eta Harresia Esperientzia". Esperientzia hori katedraleko kriptak eta hiriko harresia bisitatuz osatzen da.



Itzuli dira **haurrei zuzendutako tailerrak**

Santa Maria Katedrala Fundazioak, Gasteizko Udalarekin lankidetzan, ikasleei zuzendutako dibulgazio-tailerrak abiarazi ditu berriro azarotik. Programaren beharrak eta pandemiak eragindako egungo egoerara egokitzen ote diren zehatz-mehatz aztertu ondoren, lantegietako arduradunek jarduera hori burbuila-taldeen bidez egitea aurreikusi dute –jatorrizko ikastetxeetan dauden burbuila-taldeetan–, eta gehienez 20 ikasle eguneko.




Jarduera Fundazioaren instalazioetako areto zabaletako batean egingo da, katedralaren ondoan, eta horiek aldian-aldian desinfektatu eta aireztatuko dira, jarduera segurtasunez gauzatuko dela bermatzeko.

Tailerren helburua txikienengan ondare kulturalaren, arkitekturaren, arkeologiaren eta, oro har, artearen aurreko interesa piztea eta Gasteizko historia eta kultura ezagutaraztea da.

Klase magistrala EHUko Ondarearen Kudeaketa Masterreko ikasleentzat

EHUko Paisaiaren, Ondarearen, Lurraldearen eta Hiriaren Kudeaketa Masterreko hamaika ikasle Santa Maria Katedralera joan ziren joan den urriaren 22an, Leandro Cámara Fundazioko arkitektoaren eskutik klase magistral bat "in situ" jasotzera. Horrela, bertaratutakoek katedrala birgaitzeko eta ondarea berreskuratzeko proiektua bertatik bertara ezagutzeko aukera izan zuten.

Masterraren helburua ikertzaile akademikoak eta lurralde antolamenduarekin, ekosistemen iraunkortasunarekin, landa- hiri jarraitutasunarekin, kulturarekin eta ondarearen balorazioarekin erlazionatutako premia gero eta handiagoei erantzuteko gai izango diren profesionalak prestatzea da. Prestakuntza-programaren bitartez, paisaiari, ondareari, lurraldeari eta hiriari buruzko diagnostikoak eta azterlan prospektiboak egiteko elementu teoriko-metodologiko guztiak sartzen dira, horien ezaugarriak eta ingurunearekin duten lotura kontuan hartuta.



Argazki lehiaketa


"Gure emakume arkitektoak" kolektiboak, UNESCOren Kultur Paisaiak eta Ondarea Katedraren eta beste erakunde batzuen laguntzarekin, emakume arkitektoen lana ikusarazten laguntzeko argazki lehiaketa jarri du abian. Aurkezteko epea azaroaren 20an amaituko da. Informazio guztia esteka honetan:
https://nuestrasarquitectas.wordpress.com/



Xehetasunez

Sortzez Garbiaren eskultura berriztatuta berriro

Sortzez Garbiaren tailua, Katedralean hartzen zuen jatorrizko lekura itzuli da, Sortzez Garbiaren kaperara –"Otoizlarien kapera" izenez ere ezaguna, barruan otoitz egiteko jarreran zeuden bi eskultura zeudelako–, zaharberritze prozesu sakon baten ondoren. Lanari esker, 60ko hamarkadako zaharberritze-lanetan deseginda geratu zen erretaula baten parte zen eskultura berreskuratu ahal izan da, eta multzo osotik kontserbatzen den pieza bakarra da. Tailua, sugea –bekatuaren sinboloa– zapaltzen ari den "Eva berri" gisa dago irudikatuta, eta 20ko hamarkadan birpolikromatu zela nabaritzen da. Horrek bere hasierako dotoretasuna hutsaldu zuen. Hilabete honetatik aurrera, bere izena daraman kaperan miretsi ahal izango da, zaharberritzearen ondoren erakusten duen egoera berrian.



Kutxa-habiak instalatu dira

Santa Maria Katedrala Fundazioak laster gauzatuko du bertako faunaren presentzia bultzatzeko katedralean egindako txosten teknikoaren emaitza. Horren ondorio nagusia hiru espezierentzako kutxa-habiak instalatzea izango da. Espezie horietako batek –belatxikiak– Katedralaren horma eta teilatuetan aurkitu du bere habitat naturala Gasteizen. Ekimenaren xede diren beste bi espezieak begizta eta saguzar arrunta dira. Definitu barik dago oraindik ea aurretik fabrikatutako kutxa-habiak erabiliko diren ala banan-banan egingo diren, dauden baoetara egokitzeko.

Era berean, hontza, belatza eta belatz handia jasotzeko habiak jartzea bideragarria den ala ez aztertuko da, usoaren populazioa modu naturalean murrizten laguntzeko.